



GAZTE AKTIBISTENTZAKO

GIDA

Nola entzunarazi zure ahotsa, zure ingurua eraldatzeko





Titulua: Gazte aktibistentzako gida

Azpititulua: Nola entzunarazi zure ahotsa, zure ingurua eraldatzeko

Lehenengo argitalpena: 2022

© Educo

Aukera dago obra hau osorik edo zati batean erreproduzitzeko, edozein bitarteko edo prozedura baliatuz, betiere iturria aipatzen bada eta merkataritza-helbururik gabe egiten bada.

Koordinazioa: Gizarte Eraginaren eta Ikerketaren Zuzendaritza

Testuak: Gema Luengo, Laura Orellana, Miriam Torán eta Cristina Porras

Zuzenketa: Christine Antunes

Maketazioa: Elena Martí

Ilustrazioak: Eduard Altarriba

Argazkiak: Pexels

Esker onak: Arretaz Entzun kanpainako fase guztietan eta jardueretan parte hartu duten ikastetxeei eta hezkuntza-komunitateei, eta bereziki, entzumen-klubak osatu dituzten neska-mutilei, entzumena eta bizikidetza askotariko hezkuntza- eta gizarte-inguruneetan eraldatzeko ideiak eman izanagatik.

Kontsultatu materialak hemen: [Arretaz Entzun](#)

Dokumentu honetan landutako gaiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: educu@educu.org





ONGI ETORRI, AKTIBISTOK!

Educon lan egiten dugunok oso proposamen berezi bat dugu zuentzat.

Educo lankidetzako GKE bat da, eta 14 herrialdetan jarduten du, haurren eskubideak sustatzeko; batez ere, hezkuntza- eta babes-eskubideak.

Gure lanean, haurrak eta nerabeak laguntzen ditugu, helburu izanda **aldaketa-giroak eta tratu ona sustatzea, ahaldundu daitezen, haien eskubideak indarkeriarik gabeko inguruneetan errealitate bihur ditzaten eta haien herritartasuna modu aktiboan erabil dezaten.**

Irmo sinesten dugu zuen gaitasunetan, eta horregatik egiten dizuegu proposamen hau:

- Lanari ekiteko eta zuek bezalako kideei entzuteko gogoia baduzue...
- Gainerakoek zuen ideiak kontuan hartzea nahi baduzue...
- Kezkatzen zaituzteten gaietan sakondu nahi baduzue eta ekintzak prestatu nahi badituzue, zuen ahotsa txoko guztietara zabaltzeko eta, hala, mundua errotik aldatzen laguntzeko... hau da zuen gida!

Zer aurkituko duzue gazte aktibistentzako gidan?

Gida honetan, mobilizazio-kanpaina bat diseinatzeko moduari buruzko hainbat ideia aurkituko dituzue: zein da zuen kausa eta zer mezu helarazi nahi duzue?, zein dira zuen kanpainaren hartzailleak?, zer ekintza zehatz egin ditzakezue? Eta inspirazio-iturri gisa erabili ahalko dituzuen adibide ugari!

EDUKIAK

ONGI ETORRI, AKTIBISTOK!	3
EDUKIAK	4
SARRERA	6
ZER DA AKTIBISTA IZATEA?	7
NOLA DISEINATU KANPAINA BAT?	8
EKIN DIEZAI OGUN LANARI!	9
ZEIN DA GURE KAUSA?	10
ZEIN DIRA GURE HARTZAILEAK?	11
ZER EKINTZA GAUZATUKO DITUGU?	12
ZER EGIN GURE AHOTSA ERAKUNDEETARA IRITS DADIN?	18
IKERTZEKO IDEIA BATZUK...	20
ZER EGIN ZUEN IDEIAK ERAKUNDEETARA IRITS DAITEZEN?	21
ZER EGIN GURE AHOTSA KOMUNIKABIDEETARA IRITS DADIN?	23
ETA KANPAINA AMAITZEAN... ZER EGINGO DUGU?	25
NON JAKIN GEHIAGO? ESKURA DITUGUN BALIABIDEAK	26

Zer nahi dugu?

Arrazoi batengatik entzun diezagutela; izan ere, eskubidea izan nahi dugu. Seguru, salbu eta babestuta egon behar dugu. Pertsonak gara, eta serioago har gaitzaten eta gure iritzia gauza gehiagotarako aintzat har dezaten behar dugu. Batzuetan esaten dute haurren kontuak direla, eta arrazoi dute: haurren kontuak dira, eta garrantzia eman behar diete, guri eragiten digutelako. Zenbat axola diegu «haurren kontuak dira» esaten duten pertsonen?

Educoren *Érase una voz* proiektuko Haurren Aholku Batzordearen manifestutik ateratako testua.



SARRERA

Haur eta nerabeek entzunak izateko eskubidea dugu. Eskubidea dugu, halaber, eragiten diguten gaietan gu ere kontuan har gaitzaten eskatzeko.

Horixe ezartzen du *Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren* 12. artikulua. Baina... **aukera dugu beti eskubide horiek erabiltzeko? Zer egin dezakegu gure eskubideak bermatzeko?**

Gure parte-hartze aktiboa funtsezkoa da entzunak izateko eskubidea abian jartzeko: bititza publikoan egotera bultzatzen gaitu, ingurune babesleak sortzen ditu eta aldaketa horren protagonista izateko aukera ematen digu.

Eta asko gara! 8,2 milioi haur eta nerabe bizi dira Espainian: 8,2 milioi protagonista nahi ditugu!

Hori horrela, Arretaz Entzun kanpainaren helburua da entzute aktiboko jarreraren garrantzia sustatzea eta gure inguruko txoko guztietara helaraztea, eta haurrak eta nerabeak inplikatzeko erabakiak hartzerakoan, gure arazoak konpontzerakoan eta gure inguruneak hobetzerakoan.

Antola gaituzen horretarako!



ZER DA AKTIBISTA IZATEA?

Plangintza eta prestaketa: gure kausaren alde lan egiteko baliabideak eta denbora izateko.

Konfiantza: gauzak aldatzeko gai garela jakitea.

Elkartasuna: elkar laguntzeko eta zaintzeko.

Jakin-mina: gauza berriak ikastera bultzatzeko.

Entzute aktiboa: enpatizatze eta zailtasunak hobeto konpontzeko.

Errespetua: beste pertsona batzuekiko, ingurumenarekiko...

Taldean lan egiteko gogo: gero eta gehiago izateko.

Gauzak aldatzeko gogo: ideia sortzaileak mundu guztiarekin partekatze.

Konpromisoa eta jarraikitasuna: gure kausa kolektiboaren alde ahal duguna egiteko eta amore ez emateko.

Jarrera kritikoa: informazio hobe jasotzeko eta zer nahi dugun argi izateko.

Ezagutzen duzu aktibista talderen bat zure inguruan?

Adibidez...

Badakizu nor den **Sonita Alizadeh**?

Afganistango rap-kantaria eta ekintzailea da, eta derrigorrezko ezkontzen aurkako abestiak sortzen ditu.

Eta zu, zer motatako aktibista izango zara?

NOLA DISEINATU KANPAINA BAT?

Mobilizazio-kanpainei esker, pertsona gehiagok bat egiten dute aldatzeko dugun ideiarekin.

Zenbat eta gehiago izan, orduan eta hurbilago egongo gara gure helburua lortzetik. Nola egin pentsatzeko eta prestatzen hasteko, lehenik eta behin, neska-mutilen talde eragile bat osatu behar da, eta 5 W-en galderei erantzun:



Ondoren ikusiko dugu nola lagunduko diguten galdera horiek kanpaina baten funtsezko hiru alderdi hauek erabakitzen: gure mezua, gure hartzaileak eta gure formatua edo euskarria.

EKIN DIEZAI OGUN LANARI!

Argi daukagunean zer aldaketa lortu nahi dugun, pentsatu behar dugu nola helarazi nahi diogun mezu zuzena gure xede-publikoari, **eta ea nola egingo dugun!**



**GURE
MEZUA
PENTSATU**



**GURE
XEDE-PUBLIKOA
PENTSATU**



**GURE FORMATUA
EDO EUSKARRIA
BILATU**

Zer egingo dugu gure mezua bat etor dadin xede-publikoarekin? Zer ekintza mota egingo dugu?



ZEIN DA GURE KAUSA?

Lehenik eta behin, galdera hauei erantzuten saiatu behar dugu: **Zer aldatu nahi dugu? Eta nola kontatuko dugu?**

Elkar ezagutu, hitz egin taldeko pertsonekin...

Zerk kezkatzen zaituzte?, zer egin nahi duzue?, zertan zarete trebeak?

Egin gaiari buruzko diagnostiko bat:

Zer informazio duzue gaiari buruz?, nola eragiten dizue?, nola eragiten die beste pertsona batzuei?

Kontuz *fake newsekin*!

Iker dezagun, datu gehiago lortzeko!

Egiazta dezagun informazioa!

Izan dezagun irizpide propioa!



Bilatu lelo on bat xede-publikoa bat egitera bultatzeko...

- Erakargarria izan dadila: hitz-joko bat, agian; leloaren tonuak bat etorri behar du eman beharreko mezuarekin.
- Zehatza izan dadila, eta ez oso luzea: zehatzu leloa arazoaren testuinguruan (eskola, auzoa...).
- Pentsatzera bultzatzea: lotu leloa eguneroko bizitzarekin.

Egin dezagun ideia-zaparrada bat!

Eskolan lortu nahi badugu aldaketa, nabarmendu dezagun!

Pentsa dezagun suspense-doinuarekin!

Zehatz dezagun gaia apur bat gehiago!





ZEIN DIRA GURE HARTZAILEAK?

Oso ondo pentsatu behar duzue zer pertsona edo talde diren kanpainaren hartzaileak. Garrantzitsua da, lehenik eta behin, zuen xede-publikoa ikertzea eta ondo ezagutzea, haiengana nola iritsi jakiteko:



Beste neska-mutil batzuk

Ikaskideak, beste ikastetxe batzuetakoak, zuen auzokoak...

- Bildu beste neska-mutil batzuen ikuspuntuak.
- Zuen mezua argi eta garbi azaltzen baduzue, hobeto ulertuko dute zuen kausa.



Hezkuntza-komunitateko helduak

Irakasleak, familiak...

- Pentsatu zuen ustez zer ez dakiten zuen inguruko helduek zuen pentsamoldeari buruz eta zer ez duten entzun nahi izaten, eta bilatu hori helarazteko modurik onena.

Gero ikusiko dugu nola!



Zure herria edo hiria

Bizilagunak, zuen inguruan lan egiten duten pertsonak...

- Pentsatu zer tokitan egin nahi duzuen (zer parke edo gunetan), zer egoeratan egongo den (zer eguraldi egingo duen, ordu horretan jendea egongo den ala ez...) eta gune horretan zer jende mota ibili ohi den: zein da mezu egokiena kasu honetan?
- Ez ahaztu ingurua zaintzea.



Erakundeak eta komunikabideak

Gobernua, zuen autonomia-erkidegoa, zuen udala...

- Bilatu politikariek egin ditzaketen aldaketak (politikak, legeak...).
- Bilakatu albiste zuen ekintzak: nola lortu kazetarien laguntza?





ZER EKINTZA GAUZATUKO DITUGU?

Gogoratu: hartzaileak nor diren eta helarazi nahi den mezua zein den, estrategia bat edo beste izango da aproposago.



PARTE-HARTZAILE ASKOKO EKINTZAK

Gutunak bidaltzea

- Gutun asko bidaliz gero eskaera berarekin, arrakasta handiagoa izango da.
- Beharbada, ekintza gehiago prestatzeko lehen urratsa da.


Sinadurak biltzea

- Sinadurak biltzeko plataforma ugari daude. Ikertu ea zein interesatzen zaizuen gehien! Eta eskatu laguntza egiten dakitenei edo egiteko aukera dutenei.
- Mezu argi eta arrazoitu bat pentsatu behar da.
- Eskaera bat egin diezaiokezue erakunderen bati, lege berri bat eskatu, etab.



Benetako adibide bat...
7 urteko neskato baten
ekintza bati esker,
jostailu-marka ezagun
batek joko sexistak
egiteari utzi zion!

**Ideia baliagarri eta
deigarriren bat
aurkitzen baduzue,
kopiatu!**



Film labur eta bideo biralak

- Pentsatu ideia original bat, eman mezu argi bat eta jarri musika itsaskor bat.
- Bilatu laguntzaileak edo zuen film laburra zabalduko duten plataformak.

Ikusi beste ideia batzuk!

Sare sozialak

- Argitaratu mezu errepikatu bat modu koordinatuan, formatu berarekin: egin bideo bat, sortu traol bat...
- Asmatu lelo moduko traol deigarri bat!

Ezaguna zaizu #FridaysForFuture traola? Ikasle talde batek asmatu zuen, klima-aldaketari aurka egiteko.

Kontuan izan behar da zein den plataforma bakoitza erabiltzeko gutxieneko adina. Normalean 14 urte dira, baina egiaztatu behar bezala eta aipatu zure familiari!

Podcasta

Podcast bat graba dezakezue, eta gero partekatu:

- Bilatu telefono mugikor bat edo ordenagailu bat, grabatzeko.
- Pentsatu eta antolatu zuen ideiak grabatzen hasi aurretik... edo idatzi gidoi bat!
- Aukeratu formatua: eztabaida bat?, nola erabili musika zuen podcasta erakargarri egiteko? Zer iruditzen rap bat egitea?

Nola emango dugu ezagutera? Zer iruditzen eskolan irratsaio bat egiten badugu? Interneten edizio-programa erabilerrazak eta doakoak aurkituko dituzue.

Badakizue zer den **infografia** bat?

Ikertu... baliteke oso erraza eta deigarria izatea! Zuen taldean, seguru asko, egongo da infografia diseinatzeko talentua duen pertsonaren bat.

Zer iruditzen kausa sozialak babesten dituzten influencerrak bilatzen baditugu?

Ados, baina ingurune seguruan egon behar dugu!

Partekatuko dugu gure bideoa sare sozialetan eragina duen jendearekin?



Badakizue zer den **ziberaktibismoa**?

Ziberaktibismoan, Interneta baliatzen da espazio publikoan parte hartzeko eta zuen eskubideak erabiltzeko, nola entzunak izateko hala zuen ideiak kontuan hartzeko!



EKINTZAK KALEAN

Flashmobak edo performanceak

Egin dezagun artea espazio publikoan!

Helburua da mezu bat helaraztea, eta plazetan, kaleetan, eta merkataritza-guneetan, besteak beste, erreakzioa eragitea.

Badakizue zer desberdintasun dagoen horien artean?

Performanceak aldeaz aurretik prestatzen dira, eta ikusleekin interaktuatzea dute helburu. Flashmobak bat-batekoak eta oso laburrak dira. **Bilatu desberdintasun gehiago!**

Sormenezko adierazpenak edo kartelak

Pentsatu diseinu deigarri bat!

Oso aproposa da kolore bereko materialak erabiltzea eta kolore hori **kausa jakin batekin lotzea**.

Zuen herriko edo hiriko paretak balia ditzakezue egin nahi duzuen aldaketaren berri emateko.

Adibidez, gizarte-mugimendu batzuek **berdea** erabiltzen dute; beste batzuek, **morea**, eta beste batzuek, **koloreaniztuna**.

Badakizue zeintzuk diren?





Atentzioa emateko beste hainbat **ekintza sortzaile** daude!

Manifestazioetan, kontzertuetan, kontzentrazioetan eta abarretan bota dezakezue zuen leloa edo mezua.

Eman ditugun ideiak adibideak besterik ez dira; zuek espazioak eta ekintzak nahas ditzakezue, zuen xede-publikoaren arabera!



Erabili honelako gauzak espazio publikoetan, oso erabilgarriak dira eta:
megafonoa, musika, batukada-danborra, pankarta...



INOIZ JORRATU AL DUZUE ARTIBISMOA?

Fanzineak: badakizue zer diren?

Fanzineak aldizkari arruntak dira, xede-publiko zehatz bat hausnartzera bultzatu eta mugiarazi nahi duen gai baten ingurukoak, eta baliabide gutxirekin egiten dira.

Idatzi, moztu, itsatsi, margotu... **eta jolastu paperaren tolesekin!**

Zer jorratuko zenukete zuen fanzinean?

Badakizue zer den gerrilla marketina?

Publizitate-teknika arraroak eta sormenez beterikoak dira... Oso burutsua izan behar du, munduak zuen ekintza zabal dezan!

Informatu eta hartu ideiak... **ederra izango da!**

Bururatzen zaizue zuen zentrorako adibiderik?

Artea eta sormena gizarte-aldaketak aldarrikatzeko, partekatzeko eta proposatzeko erabiltzean datza **artibismoa**.





Antzerki-foroa

Hiru fasetan egin ohi da:

- Lehenengoa: ezinegona edo desparekotasuna sentiarazten diguten egoerak antzezten ditugu.
- Bigarrena: berriz egiten dugu eszena, baina, oraingoan, arazoari irtenbidea ematen saiatzen gara. Lehenik eta behin, egoera nola hobetu pentsatu behar dugu.
- Hirugarrena: jendaurrean (irakasleekin, familiarekin...) aditzera ematen dugu talde gisa ikasi duguna.

Antzerki ikusezina

- Antzezpena eguneroko bizitzara eramatean datza: kalera, autobusera, parkeetara...
- Eta erreakzioak eta eztabaidak eragitea!

Mikro irekia

- Parte-hartzea sustatzeko, zuen gaiaren inguruko galdera interesgarriak egin ditzakezue.
- Animatu jendea abesti bat kantatzera, poema bat errezitatzera...

Elkarri hobeto entzuteko dinamikak eta jolasak

- [Kontsultatu Arretaz Entzun kanpainako gida eta kita!](#)

Ekintza horiek, seguru asko, lagungarriak izango zaizkizue zuen inguruneak gaiari buruz zer pentsatzen duen jakiteko, beste ekintza batzuei ekin aurretik.



ZER EGIN GURE AHOTSA ERAKUNDEETARA IRITS DADIN?

Badakizue zer den **erakunde** bat?

Bai, eta ezarri egiten dituzte, eskubideak eta zerbitzuak bermatzeko; esaterako, eskolak eta ospitaleak.

Eta beste gauza asko! Nik, adibidez, askotan ikusi dut telebistan estatu osoko arauak prestatzen eta eztabaidatzen diren lekua... Parlamentua du izena!

Nik ikasi dut erakunde politikoak gero bete behar ditugun arauak egiteaz arduratzen direla.

Zer barne hartzen du «erakunde» hitzak?

Nik uste dut, gauza asko aldatzeko, erakundeetara iritsi behar dugula; adibidez, gobernura.



Eremuak

Estatua

Udalerria

Autonomia-
erkidegoa

Jakingo duzuenek, Espainian, udalerriak, erkidegoak, hiri autonomoak eta estatu zentrala daude. Maila horietako bakoitzak herritarrek hautatutako batzar bat du, arauak eztabaidatu eta lantzen dituenak, eta arauak aplikatzen dituen gobernu bat.

Zer **ekintza** mota egin ditzakegu?

Erakundeetan eragina izateko, helburu zehatz bat izan behar duzue. Adibidez, lege berri bat egitea, araren bat aldatzea, zerbitzuren bat edo programa jakin bat ezartzea, azpiegiturak eta tokiko eremuak hobetzea.... Zuen proposamenak gauzatzeko, ekintzak egin ditzakezue kalean, sare sozialak erabili, etab.

Beste ekintza mota batzuk ere egin ditzakezue; besteak beste, erakunde jakin bati zuzendutako **eskaerak, kontsultak eta kexak**: aurrerago aurkituko duzue informazio gehiago gida honetan!

Baina, zein erakundek edo administrazioek du eskatzen duzuen aldaketa egiteko ahalmena?

Ikus dezagun!

ZER ERAKUNDERI HELARAZI GURE AHOTSA...

Udalerriak, autonomia-erkidegoak eta gobernu zentrala kontu desberdinez arduratzen dira; hau da, **eskumen** desberdinak dituzte. Beraz, norengana jo jakiteko, lehenik eta behin, erakunde bakoitzari zer ardura dagokion ikertu beharko duzue! Pentsatu, halaber, zein erakundek izan dezakeen **eragina** zuen xede-publikoarengan.



Baina erakunde horiek askoz eskumen gehiago dituzte. Gainera, tokiaren arabera, baliteke udalen, autonomia-erkidegoen nahiz gobernu zentralaren eskumenak berberak ez izatea.

Beraz, kanpaina prestatu aurretik, ondo informatu behar duzue!

Badakizue **zertaz arduratzen den zuen udala?** Badakizue **non egiten den zuen udalaren osoko bilkura?**
 Nola egin ditzakezue **eskaerak?** Ba al duzue **haurren edo nerabeen kontseiluren** batean parte hartzeko aukerarik?

IKERTZEKO IDEIA BATZUK...

Kontsultatu zuen udalaren edo erkidegoaren webgunea:

- Ba al du herritarren arretarako postontzirik?
- Ba al du zalantzen, kexen eta iradokizunen postontzirik?
- Ba al du kontsulta-formulariorik?

Jakingo zenukete nola bete inprimaki bat edo **nola egin eskabide bat?**

Entzunak izateko dugun eskubidea baliatzeko...

Eskabide bat erakunde bati zuzendutako idazki bat da, eta eskaerak egiteko erabiltzen da, argudioetan oinarrituta betiere.

Ikusi duzue inoiz eskabiderik?



Telefono garrantzitsu batzuk iker ditzakezue

116111: Haurrei laguntzeko telefonoa da, eta Europa osoan dago erabilgarri, 24 orduz, urteko 365 egunetan.

900 018 018: Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren eskola-jazarpenaren aurkako telefonoa, doakoa eta konfidentziala; 24 orduz dago erabilgarri.

900 20 30 41: Berdintasun Ministerioren eraso edo diskriminazio arrazista ororen aurkako telefonoa, doakoa eta konfidentziala.

016: Emakumeen aurkako indarkeria oro artatzeko telefonoa.

Telefono horiek dituzue zuen udalean edo erkidegoan? Bila itzazue!

INSTANCIA GENERAL

Abizenak: _____ Izena: _____

Helbidea: _____

PK: _____ Udalerria: _____ Probintzia: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

NANA: _____

HONAKO HAU AZALTZEN DU:

... (azaldu labur-labur zure argudioak)

HONAKO HAU ESKATZEN DU:

... (adierazi argi eta garbi zer eskatzen duzun)


Tokia: _____ Data: _____

Sinadura

«Bildutako datuak herritarren baimenarekin tratatuko edo arxivatuko dira, eskubidea baitu bere datuak nori izango dituen eta zertarako erabiliko dituen erabakitzeko, baita zehatzak izan daitezela eta bildu diren helbururako erabil daitezela eskatzeko ere, indarrean dagoen legegian zehaztutako salbuespenekin». Gai horrekin zerikusia duten kontuak argitzeko, deitu 012 telefonora.

**Zalantzarik
duzue?
Proposatu
jarduera
hori euskara
eskoletan!**

ZER EGIN ZUEN IDEIAK ERAKUNDEETARA IRITS DAITEZEN?



Udalaz, autonomia-erkidegoez eta gobernu zentralaz gain, askoz erakunde gehiago daude! Ikus ditzagun!

Arraza edo Etnia oinarri duen Diskriminazioa Desagerrarazteko Kontseilua

Tratu-berdintasunaren aldeko eta arraza edo etnia oinarri duen diskriminazioa desagerrarazteko neurriak sustatzen ditu, aurreko orrialdean ageri den telefonoak bezalaxe. Kontseilu honek laguntza eta aholkularitza ematen die diskriminazioaren biktimei.

Haur eta Nerabeen Partaidetzarako Estatuko Kontseilua

34 neska-mutilek osatzen duten erakunde honek helburu du haur eta nerabeek administrazio publikoan parte hartzeko eskubidea sustatzen duten ekimenak partekatzea eta haien kezkak, ardurak eta iritziak zabaltzea.

Ba al zenekiten kontseilu honetan parte hartzeko hautagaitza aurkez dezakezuela?

Informatu! **Haurren Plataforman** aurkituko duzue prozesuari buruzko informazio eguneratua.

Arartekoa:

Herritarren oinarrizko eskubideak defendatzen ditu, eta administrazio publikoen jarduera gainbegiratzen du.

Ba al zenekiten edonork jo dezakeela Arartekora, esku har dezala eskatzeko, eta doakoa dela?

[Kontsultatu Arartekoaren webguneko haurren atala!](#)

Adingabeen defendatzailea:

Haurren eta nerabeen eskubideak babesten eta sustatzen ditu. Ikertu ea zuen erkidegoan adingabeen defendatzaile dagoen!

ZER EGIN ZUEN IDEIAK ERAKUNDEETARA IRITS DAITEZEN?

LGTBI Pertsonen Partaidetzarako Kontseilua

Tratu-berdintasuna eta sexu-orientazioa, identitatea edo genero-adierazpena oinarri duen diskriminaziorik eza sustatzen ditu, eta LGBTI pertsonen eta haien familiek gizartearen eremu guztietan gehiago parte hartzea du helburu.

Ba al zenekiten Berdintasun Ministerioak LGBTI kolektiboari informazioa, aholkularitza eta laguntza emateko baliabideen bilatzaile bat duela? Aurkitu gertuen dituzuenak!

Emakumearen Partaidetzarako Kontseilua

Emakumeek bizitza publikoan parte hartzeko elkarten topagunea.



ZER EGIN GURE AHOTSA KOMUNIKABIDEETARA IRITS DADIN?

Zuen mobilizazio-kanpaina zabaltzeko orduan, komunikabideekin harremanetan jar zaitezke, zuen proposamenak ikusgarri egiteko:

- **Irratia:** joan irratsaio batera, bidali podcast bat...
- **Idatziz:** idatzi zuen ideiak eta proposamenak biltzen dituen manifestu bat, eta bidali tokiko, eskualdeko eta estatuko komunikabideetara, lortu nahi duzuen irismenaren arabera. Bestela, bidali artikuluren bat aldizkari edo egunkari batera.



ZER EGIN GURE AHOTSA KOMUNIKABIDEETARA IRITS DADIN?



Nola idatzi **manifestu** bat?



Manifestuek talde baten ekarpenak biltzen dituzte, eskaerak laburbiltzen dituzte eta iritzi publikoaren aurrean defendatzen dituzte.

Gogoratu oso baliagarria izango dela talde osoak bere iritziak eta hausnarketak partekatzea, eta **zuen ideiak babesteko datuak eta ikerketak edukitzea.**

Manifestu bat egin aurrerik, komeni da honelako galderari erantzutea...

- Zein dira mezuaeren hartzaileak?
- Zer esan behar duzue edo zer adierazi nahi duzue?
- Zertan oinarritzen dira zuen proposamenak?
- Zer aldaketa proposatzen dituzue?



Nola jokatu **komunikabideekin** **elkarrizketatzean?**

- Erakutsi segurtasuna gorputzarekin; urduri bazaudete, adibidez, hartu bolaluma bat, eskuak gehiegi ez mugitzeko.
- Indartu mezua, eta, ahal baduzue, **kanpainaren gaiarekin zerikusia duen leku bat** aukeratu elkarrizketa egiteko.
- **Astiro hitz egin**, jendeak ondo ulertu eta adieraz ditzan zuen ideiak: prest izan datuak eta mezua!
- Gogoratu **garrantzitsuena zuen kanpainaren gaia dela**; beraz, zuen informazio pertsonalarekin lotutako galderak egiten badizkizute, saiatu elkarrizketa zuen kausa kolektibora bideratzen.

ETA KANPAINA AMAITZEAN... ZER EGINGO DUGU?

Arrakasta
izan badugu...
ospatu egingo
dugu!



Eta lortu ez badugu...
ikasitakoa ospatu,
gure emaitzak
ebalatu eta berriro
saiatzeko ekintza
berriak pentsatuko
ditugu!

NON JAKIN GEHIAGO? ESKURA DITUGUN BALIABIDEAK

- *Viaxe dos heroes e heroínas polo dereito á educación. Guía para a formación de activistas xuvenís polo dereito humano á educación.* Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpaina (Galizia), 2018.
- *Actívate. Manual de instrucciones para cambiar el mundo.* Plena inclusión, 2021. <https://www.plenainclusion.org/publicaciones/buscador/guia-de-activismo-para-personas-con-discapacidad-intelectual-y-del-desarrollo/>
- *¿Caminamos artistas? Guía para la creación participativa de acciones artivistas para la salud global en centros educativos.* Farmamundi, https://www.observatoriodelainfancia.es/ficherosoia/documentos/5970_d_Caminamos-Artivistas.pdf
- *El Movimiento es con los otros. Guía 2 sobre movilización juvenil.* Movimiento Vuela Libre, 2021. <https://downtozeroplatform.com/yvfc/files/GUIA2.pdf>
- *Érase una voz... No pases, actúa. Guía de ideas para el diseño de campañas y acciones para la incidencia local.* Educo, 2019. <https://educowebmedia.blob.core.windows.net/educowebmedia/educospain/media/docs/campanas/guia-movilizacion-erase-una-voz.pdf>
- *Guerrilla Art Kit.* Keri Smith, 2013.
- *Arretaz Entzun kanpainako gida didaktikoa eta eranskinen kita.* Educo, 2020. <https://activaescucha.org/>
- *Guía para influir con impacto. Cómo llevar a cabo estrategias de influencia efectivas.* Oxfam Internacional, 2020. <https://oxfamlibrary.openrepository.com/bitstream/handle/10546/621048/gd-influencing-for-impact-guide-150920-es.pdf?sequence=7>
- «Entzun – Ekin – Aldatu», Haurren parte-hartzeari buruzko Europako Kontseiluaren eskuliburua, haurrekin eta haurrentzat lan egiten duten profesionalei zuzendua. Europako Kontseilua, 2020. https://www.observatoriodelainfancia.es/ficherosoia/documentos/7417_d_ManualConsejoEuropapParticipacionInfantil.pdf
- *Pasaportea zure eskubideen alde.* Europako Kontseilua. <https://rm.coe.int/CoERMPublicCommonSearchServices/DisplayDCTMContent?documentId=0900001680473565>
- *Nik eskubidea dut, zuk eskubidea duzu, hark eskubidea du...* Haurren eskubideen hastapenak. Europako Kontseilua. <https://rm.coe.int/CoERMPublicCommonSearchServices/DisplayDCTMContent?documentId=0900001680473593>

ARRETAZ ENTZUN

ERANSKINEAN K

kanpainaren gidan azaltzen diren jardueren garapena errazteko eta ikasketetan entzute aktiboa sustatzeko



ARRETAZ ENTZUN

GIDA DIDAKTIKOA

ikasketan entzute aktiboa
sustatzeko jardueren garapenerako



educo
Member of ChildFund Alliance



Hemen dituzue
Arretaz Entzun kanpainako
beste material batzuk.



 POR SOLIDARIDAD
OTROS FINES DE INTERÉS SOCIAL

